

Mondragon Unibertsitateak Bidasoa Eskualdeko ikastetxeetako 200 bat ikasle bilduko ditu FICOBAN, ekintzailetzari eta gizarte-erantzukizunari buruzko jardunaldian.

2013/10/16

Mondragon Unibertsitateak bihar FICOBAN Bidasoa Eskualdeko 200 ikasle baino gehiago bilduko ditu "GAZTERS 3, Bidasoa Eskualdearekin konprometitutako ekintzaileak" Jardunaldian. Horren helburua Bidasoa eskualdeko negozio-eredu berrien inguruan gogoeta egitea da, Gizarte Erantzukizunaren ikuspegitik. Jardunaldiaren helburua, hortaz, Bidasoako sektore estrategikoen negozio-eredu berria sortzea eta birmoldatzea da, gizartearekiko negozio arduratsu bihurtzeko.

Horretarako, Jardunaldiko parte-hartzaileek eskualdeak dituen arazoak jorratuko dituzte gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ikuspegitik, eta horientzako irtenbideak aurkituko dituzte. Arazo horiek RESOT mugaz haraindiko proiektuen barruan antzeman dira. Horren helburua, Europa 2020 estrategiari jarraiki, gizartearekiko arduratsuak diren dinamikak sustatzea da, eta, horrela, aurretiko proiektuak, hala nola INNOV Mugabe eta ERALAN, osatzeko erabiltzea. Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza fakultatea eta haren MIK ikerketa-zentroa dira proiektuaren buru, eta Irungo Udalak, Hondarribiko Udalak, Communauté de Communes Sud Pays Basque-k eta Bidasoa Bizirik-ek hartzen dute parte. Aurrez, Eskualdeko sektoreen egoerari buruzko ikerketa egin da.

Jardunaldia

GAZTERS programaren hirugarren edizio honetan, hain zuzen, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu ikasleez gain, Irungo La Salleko, Pio Baroja Ikastetxeko (Irun), Bidasoa LHko (Irún), Talaia Ikastetxeko (Hondarribia) eta Ama Guadalupekoa Ikastetxeko (Hondarribia) ikasleek ere hartuko dute parte jardunaldian.

Irungo alkateak emango dio hasiera jardunaldiari. Ondoren, Hondarribiko Udaleko kultura-zinegotziak, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako dekanok Lander Belokik eta Mondragon Unibertsitatearen MIK ikerketa-zentroko zuzendari nagusi David Sanchezek gizarte-erantzukizunari buruzko nozioak eskainiko dituzte, baita Bidasoa Eskualdearen arazoei eta erronkei buruzkoak ere. Jarraian, ikasleek diziplina anitzeko lan-taldean osatuko dituzte, eta gizarte-erantzukizunaren bitartez Bidasoa Eskualdeko bentetako arazoei irtenbidea aurkitzeko proposamenak landuko dituzte. Zehazki, ikasleek beraiek hamar sektoreen artean aukeraturiko bost sektore landuko dituzte, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

Ikastetxe bakoitzak bere proposamenak aurkeztu ondoren (15:00etatik 16:30era), parte hartzen duten ikasleek aurkezturiko proiektuetariko onena aukeratu da topaketari amaiera emateko. Proiektuek eskualdeko bentetako arazoak izango dituzte oinarri. Jardunaldia sari-banaketarekin amaituko da, 18:00ak eta 19:00ak artean.

